

UDAKO
SERIEA

Kantuan diren lekuak (I) • Estua da Joxan Artzeren poemek paisaiarekin duten lotura, eta horregatik ia lurra zapal dezake haren hitzak irakurtzen dituenak. Gure bazterrak eta gure hitzak lotzen dituzten sei artikulu sortako lehen alea da hau.

Lanbroak ezkutatzeko duena

Iñigo Astiz Lesaka-Lekaroz

Lurralde ezezagunetan dabil hemen dabilena: bere baitan. «Maite ditut/ maite/ geure bazterrak/ lanbroak/ izkutatzeko dizkidanean/ zer izkutatzeko duen/ ez didanean ikusten/ uzten/ orduan hasten bainaz/ izkutuko.../ nere barruan bizten diren/ bazter miresgarriak/ ikusten». Zehaztapen geografikorik txikienik ere ez da ageri Joxan Artzeren poeman, baina Euskal Herrian paisaiei buruz idatzitako poemarik ezagunenetarikoa bat izango da. Edozein leku izan daiteke, baina leku hau da: Lesakako Agiña mendia. Hemen bihurritu zuen idazle eta Ez Dok Amairu taldeko kideak iparrorratza bere baitarantz, eta hemen ikusi zuen ikusezina, duela 40 urte inguru. Uda da orain, eta laino arrastorik ez da inon ageri; halere, igar daiteke idazleak harrapatu nahi izan zuen lanbroa orain ere. Hitzak zapaltzen ditu hemen lurra zapaltzen duenak, melodia bat ere bai, eta baita pertsona bat ere: norbera. BERRIAK kantua duten lekuei buruz prestatutako artikulu sortako lehen alea da hau. Igandera bitarte beste sei paisaia aurkeztuko ditu, hainbat euskal poeta, bertsolari eta kantari eza-gunen lanen bidez: Xabier Lizardiren Tolosa bihar; Martin Larralde eta Joseba Sarrionandiaren Hazparne etzi; Joxepa Antoni Aranberri Petriarena Xenpelaren Erreterria ostiralean; Gabriel Arestiren Bilbo larunbatean; eta Hertzainak Gasteiz igandean.

«Poema ez duk Agiñako parajei buruz». Artzek berak egin zion zehaztapena Zuhaitz Gurrutxaga aurkezleari ETBko Tumatxak saioan. Izan ere, beste da hark hemen ikusitakoa. «Lagun batzuk Lesakan egon gintuan, ardo pixka bat edango genian, eta gero esan genian: 'Joango gaituk Agiñara, eta hango paisaiaz gozatu diagu'. Eta joan gintuan kas-

ko hartara, eta dena lanbroak hartuta zegoan. Dena. Ez zuan ezer ikusten. Eta orduan beste zerbait ikusi genian». Horra poemako lainoa. «Zerbait definitzekotan, esan nezake poetak esan ezina esan beharko lukeela, ikusezina erakutsi behar lukeela, hori dela bere ofizioa gizarte batean». Horra Artzeren hitzetan poetak egin behar lukeena, eta horra poetak testu horretan egiten duena. Begiez ikusten denaz bestelako paisaia bat deskribatu nahi du hark. Horregatik mintzo da poema leku honi buruz, eta, aldi berean, beste bati buruz. Aldi berean dago beste inon eta bertan.

Bare da giroa gaur. Trabarik gabe doaz hodeien itzalak baso gainean, guztiz arrotz ez den alfabeto ulertezin bateko letrak balira bezala. Eskura da eskuragaitza hemen. Ikusten ez denaz mintzo da ikusten den guztia, bai, behintzat, Artzeren poemaren ispiluan. Egun-pasa etorri diren familien agurrak, «aupa!», mendi soilgunetan ikusten diren bordak, ardiaren joare hotsa, pago artean isilik haziz doazen pagoak, txorien kantua, haizeak mugitzen dituen iratzeek estalitako historiaurreko hilobiak, ermitaren gerizpean atsedean hartzen duten pottokek... Hau guztia da Artzeren lainoak ezkutatzeko duena, baina, haren hitzetan, paseatzen denak, eguzkipean ere, ikusten ez dena igar dezake ikusten duen guztia- ren atzean. Izan ere, badira leku bat alda dezaketen hitzak.

Zaharreen berri

Garai bat ere bada leku hau. Hemen daude Artzeren hitzak, hemen Oteizak Koldo Mitxelenari eskainitako eskultura, hemen Ez Dok Amairuren doinuak, hemen Nestor Basterretxearen Pilotari filmeko irudien jatorria... Historiaurrea eta modernotasuna uztartu zuen belaunaldi oso baten oihartzuna igar daiteke muino honetan. Garai baten gainean dabil lur honetan dabilena. Diktadura sasoia da, eta arte zaharretik



Lesakako Agiña mendiko muinoan dagoen Jorge Oteizaren eskultura eta Luis Vallet arkitektoak diseinaturako ermita;

Agiñako unibertsitateaz mintzo da Xabier Lete. «Bizitzan batzuetan gauzak ez dira ikasten denbora askoan, hilabeteetan edo urteetan, modu jarraituan, irakurriaz edo; batzuetan gauzak ikasten dira supituki. Barruan zerbait daramazunean. Eta niri arratsalde hark askorako balio izan zidan». Ez Dok Amairuren lehen

**Agiñako muinora
lagunartean egindako
bisita batean sortu
zitzaien 'Gure bazterrak'
poema Joxan Artzeri**

**Oraindik ere
bizirik igar daitezke
Ez Dok Amairuren
garaiko oihartzunak
mendi kaskoan**

**Lekarozko plazan
dagoen etxeko leihotik,
orain ere bizi igar-
daiteke 'Baztan' kanta
sortu zuen paisaia**

rena da. Salbazio espazio bat da gizakiarentzat». Leteren ahotsez gero Leteren aitorpena: «Asko ikasi nuen arratsalde hartan». Agiñan, alegia. Hemen, beraz.

LanalanalanaGIZONAlana

Luzea da bertan igar daitekeen soka. Gune hau hautatu zuten La-boaren errautsak hedatzeko ere, eta ez zen kasualitatez izan. Cromlechez beteta daude soilgu-neak; hor da Luis Vallet arkitekto-ak diseinatutako ermita, eta hil dako mendizaleen omenez lan datutako zuhaixkak ikus daitezke haren atzealdean. Hilarri izkribu bat ere bai, 2003an hilda-ko mendizalearen omenez: «Gu sortu ginen enbor beretik sortuko dira besteak». Hitzen gainean da-bil oinez lurrotan dabilena. Baina dena ez da transzendenzia. Giza izerdiaz ere mintzo dira Artzeren poemak, eta igar daiteke izerdi hori ere Agiñan. Oteizaren eskul-turaz harago, beste mairu baratze baten ostean, enbor sorta bat dago pilatuta bide bazterrean, de-nak moztuta, adar arrastorik ga-bekoak guztiak, bata bestearen neurri berekoa. Milaka enbor. Eta 1970etik dator orain oihartzuna: Artzek Ez Dok Amairukoekin prestatutako *Baga, biga, higa* ikuskizunetik zehazki. Mantra moduko batean entzuten dira or-duko grabazioetan taldeko gizo-nak, eta Lurdes Iriondoren ahots zorrotza tarteka kontrapuntuan. Eta Artzeren poema horri egiten diote ttakun bide bazterreko mi-laka enbor horiek. «Lanalalana-lanalalanalanalanalanalanala-nalanalanalanalanalanalanala-nalanalanalanalanalanalanalanalanalananaGIZONAnalalanana-lanalalanalanalanalanalanana».

«Ederra da parajea, bai». Le-
karozko bere etxeko leihotik be-
gira dago Nekane orain, herriko
plazako lehen eraikinetariko ba-
tean. Artzek eta Jose Angel Iriga-
raik 1970eko uztailaren 20ko goi-
zean zabaldu zuten leiho beretik,
alegia. «Elizondoko saihezbidea
egiten ari zirenean beldur ginen
autoen zarata etxeraino helduko
ote zen, baina ez da deus adi-
tzen». Isiltasun honetatik ikusten
dena ikusi zuen idazleak. Leiho
honetan sortu zen *Baztan* poema.
Hemen egin zuten bat lekuak eta
pertsonek. «Ez dakit garbi noiz/
bainan egunsentiarekin/ izango
zen/ Baztango bazterrak/ isilka/
nere logelan hasi ziren/ sartzen
eta sortzen./ Lekurik ezak non-
bait/ esnatu ninduen/ segituan
jausi nintzen/ non nengoen/
leioha ireki nuen/ eta emeki-
emeki/ Baztango lurrean/ Baztan
baitan/ Baztan izan nintzen».

Ez zegoen etxean egun hartan, baina zehatz gogoratzen du data Nekanek: 1970eko uztailaren 20ko goiza izan zen, ziur. Senarra eta bera egun haietan ezkondu zirelako daki. Baztandarren Bil tzarrean izan zuten saioa aurreko egunean Ez dok Amairu taldekoek, eta, Nekaneren familiakoak lagun zituztenez, etxera joan zitzaizkien lotara Artze eta Irigarai. Esperientzia mistiko bat balitz bezala kontatzen du ordukoa usurbildarrak *Zai, zoi bele* dokumentalean. Leihoa zabal-tzean beste zerbait zabaldu balitzaio bezala. «Baztan olerkia hor etorri zitzaidan, hor. Etxe horretan esnatuta goizez. Klaro, gauez iritsi gintuan, eta goizez, leihopak ireki, eta Baztan ikustea izan zuan ikaragarria». Orduan ikusitakoa ikusten da orain; edo gutxi gorabehera. Han jarraitzen du Abartan mendiak, Mendaurrek, Auzak, Zirolak, Saioak... Saihesbidea egiteko lanen ondorioz, ordea, soil dira orain lehen baso gune izandako batzuk. Eta zuhaitzak desagertzean agertu da heriotza paraje ederraren erdian, Gartzaingo hilerria ere ikusten baita orain leihotik.


Baztango matrioxka

Baina ez da soilik leihoa; paisaiaz betea dute etxea ere. Osaba zuen Jabier Ziga margolaria Nekanek, eta haren margolanek apaintzen dituzte orain etxeko hormak. Zintzilik Baztango mendiak, eskegita Baztango zubiak; paretan geldituz Baztango ibaiak. Baztan irudikatzen duten irudiak Baztan baita. Matrioxka jolas moduko bat, nor noren barruan dagoen argi ez balego bezala. Eta hori deskribatzen du poemak ere.

«Zu nor zaitugu?». Bizi gogoratzen du Artzek 1970ean Lekarozko etxekoandreak egin zion galdera. Sartu zen sukaldera jate korik izango ote zuten galdetzerara, eta han «irribarre gozoko amona». Nekaneren ama, alegia. Idazlea begi biziz azalpenetan. «Ez zakiat arrosarioa errezatzen edo babarrunak aletzen ari zuan. Begiak altxatu, eta esan zian: 'Eta zu nor zaitugu?'. Ah! Nor-zai-tugu... Geratu ginen... 'Nor zara zu' esango genian guk, baina ez. Nor-zai-tu-gu! Ze ederra! Hori duk harrrera!». Bertako sentitu zen poeta etxe honetan, etxeko Baztango herri honetan. Eta baita Baztan ere, Baztango leiho honetan. Poeman dator: «Emeki-emeki/ Baztango lurrean/ Baztan baitan/ Baztan izan nintzen».

BIHAR

Xabier Lizardiren Tolosa.



Joxan Artze poetaren Gure bazterrak poema sortu zen lekua. INIGO URIZ / ARGAZKI PRESS

UDAKO
SERIEA

Kantuan diren lekuak (II) • Badaude hitz egiten duten lekuak, eta badaude ibil daitezkeen hitzak, eta, oraindik ere, gurutza ditzake Xabier Lizardiren testuak, Tolosan trena hartzen duenak, adibidez. Zarautzen, mapan koka dezake idazlearen amets linguistikoa.

Paradisuko igaroaldia

Iñigo Astiz Tolosa-Zarautz

Ongi ikustera heltzerako galdu egin zuen paradisu-
sua Xabier Lizardik (1896-1933). Orduko 80 kilometroko abiaduran-edo, Tolosatik Donostiara bidean, treneko leihotik igarri zuen parnaso; eskura kasik, baina baita eskuraezin ere. Argi deskribatzen du sentipen malenkoniatsu hori *Bultzi-Leiotik* poeman: «Oi, lur, oi, lur! Oi, ene lur nerea!... / Oi, goiz eme, / parre gozoz ernea!... / Arto musker, / mendi, baserri zarrak; / ale gorritz / abailduta sagarrak; / oro laño / më batek estalia, / urrezko oro / eguzkiak yantzia...». Leihotik ikusten duen hori da Lizardiren ustez iraun behar lukeena, baina hain zuzen ere, leihotik ikusten duen hori da desagertuko dena. Paisaia baliatu zuen idazleak bere pentsamendu, sentipen eta beldurak adierazteko, eta, testua idatzi eta 85 urtera, oraindik ere bizi igar daiteke 36ko gerraren aurreko idazle nagusiatariko bat izandakoaren mina. Konpartitu dezake bagoia Lizardirekin irakurleak, badaudelako hitz egiten duten lekuak eta ibil daitezkeen hitzak.

Euskaraz edertasuna posible zela frogatzea. Horixe Lizardiren lorpena, Koldo Izagirre idazlearen hitzetan. XX. mendeko poesia kaierak bilduman autoreari eskainitako hitzaurrean azaldutakoaren arabera, ordea, ez zuen samurra izan egitekoa. «Lizardiren poesia gizamaila kultu baten kontsumorako artea zen. Bere garaiko klase landua, zoritxarrez, erdalduna zen gehienbat, eta euskaldungoa berriz ez zen aski eskolatua euskaraz edertasuna posible zela frogatzen zion artistaren lana dastatzeko, urte asko eta historia luze bat pasa behar izan dute poesia minoritario hura herri oso baten erreferentzia izateko». Primo de Riveraren diktaduraren

bueltan, gudu zelai bihurtu zen baita edertasuna ere. Testu errazak idatzi behar zirela batzuek; testu länduak ere beharrezko zirela besteek. Eta hor Lizardiren lorpena, Izagirrearen hitzetan. «Ingurune hiperpolitizatu batean beti jokatu zuelako poesiaren autonomia begiratzearen».

85 urteren aldea dago Lizardiren poematik orain bozgorailuek ematen duten abisura: «Adi, mesedez, debekatuta dago trenbidea zeharkatzea; horretarako dauden pasabideak erabili». Ongi bidaia-tu du testuak, halere. Leihoaren bestaldean dira, oraindik ere, poetak deskribatutako arto muskerak, mendiak, baserri zaharrak, nekazariak, soroak... Lizardirena da, oraindik, Tolosako trenak zeharkatzen duen lurra. Igartzen da haren paradisu leihoaz bestaldera. Hor dirau belarraren freskotatunak, sagarrondoaren gerizpeak, haize ufada xuabeen laztanak. Baina, egun, fabrika izenekin nahasten dira mendi izenak. Trenbide ertzean, industrialdeak, grafitiak, autobideak, hainbat solairuko eraikinak... Halere, Lizardi zeharkatzen du trenak oraindik.

Abiadura elektrikoa

«Nora zoaz?». Perot enpresako gerente lanetan aritzen zen poeta, eta horregatik izan zuen bidaia-tzeko aukera. Zarautzen jaio, Tolosan bizi, baina noizbehinka joaten zen Madrilera, eta joaten zen Parisera, eta Bartzelonara, eta Donostiara... Ezin zehatz esan, horregatik, zein den 1929ko poeman idazleak deskribatzen duen tren bidaia, baina erantzuna eskatzen du, ordea, 2014ko txartel saltzaileak, eta hautatu egin behar, beraz. Tolosa-Madril, 45 euro, zazpi orduko bidaia. Tolosa-Bartzelona, 38 euro, lau orduko bidaia. Tolosa-Donostia, 3,60 euro, 24 minutuko bidaia. Bidaia guztiak Lizardik egindakoak baino azkarrago, baina guztiak Lizardik gurutzatutako lur beretan. Azkenean, erantzuna jaso, eta irribarre saltzaileak. «Oso ongi.

3,60 euro, mesedez». Baina ez da zuhurreria; badu bere poesia hautuak. «Béko bear goriak / narama... Agur / soro, sagar, mendiak!...». Trenbidea maldan behera irudikatzen du poetak testuaren azken lerroetan, eta beherantz egiten du trenbideak

ere Goierriitik Gipuzkoako hiribururako tartean. Hori da, behintzat, Lourdes Otaegi literatura irakasle eta Lizardiren laneko adi-tuaren hipotesia. Lizardiren bidaia da bidaia hori. Hau.

Buelta poemara: «Zure bazter, / gurazko aberria, / doa zoro / (ta

bertan ni) bultzia... / Oi, ene lur, / baninduzu zerea, / zu landu, ta / zure sariz ase!...». Leihotik bizi pasatzen irudikatzen ditu mendiak poetak. Zoro. Eta data ez da kasualitatea. 1929an idatzi zuen Lizardik *Bultzi-leiotik* poema, eta historikoa ere bada idazlearen



Gaur egun ere, Xabier Lizardi poetak 1929an ezagutu zuen ibilbide bera egiten du Tolosatik Donostiara doan trenak. Hor

harridura horregatik. Izan ere, urte hartan elektrifikatu zuten Norteko ferrokarrila. Orduan utzi zuten lurrunezko makina bazterrean, eta orduan hasi zen tren elektrikoa martxan. Aurrekoak baino biziago, zoroago. Eta, horregatik, idazlearen sorpresa. Horregatik ageri zaizkio ezezagun, ordura arte ezagun zituenak. Eta gaur arte. 1929ko ibilbide bera baituegun ere trenbideak.

Arima ageri duen paisaia

«Ni naiz paisaia». Azorin poeta espainiar ezagunaren esaldi ezagun hori darabil Luis Mari Mujika idazleak Lizardiren paisaiaren trataera laburbiltzeko. Kanpo eta barru, barru eta kanpo, desagertu egiten da ia muga poetaren testuetan. Eta uztarketa hori aipatzen du Mujikak 1996an kaleratutako idazlearen paisaien inguru-

ko ikerketan. «Gure olerkariaren paisaia ez da zerbait fisikoren ezaugarri, arimaren azalbide baino». Ikusten duen horretan erakusten du ikusi ezin dena poetak: «Lizardik ere interiorizatu egiten du paisaia; heriotzaren presentzia, Jainko-gosea, aldiaren iragantasuna, adibidez, etengabea da bere paisaiaren zertzeladatan». Azorinen hitzak hartuz, beraz: Lizardi da paisaia hau.

Poesiak gizarte alda dezakeela sinisten zuen Lizardik; sinbolo oihan bat da haren poesia. Politikoa ere bada eta haren literatura. Garaiarekin bat. Bidegileak bildumarako Jon Kortazar literatura adituak idazleari eskainitako zenbakian deskribatzen du giro hura. «Diktadurapean debekatu egin zuten euskal abertzaletasunaren zabalkundea. Horregatik kultura bihurtu zen politika egiteko bi-

de». Euskaltzaleak erakundeko kide lehenik, EAJren Gipuzko Buro Batzarreko idazkari nagusi ondoren, nabarmena da abertzaletasunak Lizardirengan duen eragina. Poema nazionala sortzeko asmoz zebiltzan garaiko euskal idazleak; asmo hori igartzen da

Lizardik kantatutako lur bera da, orain ere, Tolosako treneko leihoetik ikusten dena: «Oi, lur, oi, lur! Oi, ene lur nerea!»

Egun salgai dagoen sortetxeko lorategian deskribatu zuen idazleak euskarari buruz zuen ametsa

Zarauzkoaren testuetan ere. Nolabait, aberria ere goratzen du Lizardik, mendiak goratzen dituean. Pizkunde garaia da.

«Gaizki irakurritako Lizardi

baten kanonizazioa» aipatzen du Anjel Lertxundik, halere, *Lizardi eta erotismoa* libururako idatzitako hitzaurrean. «Poetaren giza neurriko oro erre eta gero, haren hausterreen gainean jaso da alda-re lizardiarra: aberria, euskara, Jainkoa, Berpizkundea... (...) Giza mailako Lizardi poeta bazterturik, sinbolo mailako Lizardi bat sakralizatu genuen». Baina giza Lizardi hori igar daiteke poemen atzean. Esperimentzia du oinarri bere poesiak. Ikusitakoa bilakutzen duikur.

«Pagadizabal gestioa SE VENDE 943835153».

Zarauzko Egaña-Enea etxean dago kartela. Lizardiren aitona eraikiarazi zuen etxean. Hori da Asaba zârren baratza poemari deskribatzen den lekua. Hala zehazten du Bidegileak bilduman poetari eskainitako aleak. Begi bistan den etxe hau da poemako etxe hura. Salgai, orain, arbasoen etxea. «Asaba zârren baratza, untzadun ormek esia, / eguzkiak lén maitea... / Otzaldi zoro baten itzuli, / yoka nagokik atea. / Yoka nagokik atea, / ate gorri zurezkoa, / euri zârrek usteldua; / marraskilloek bide biurri dirdaitsuez apaindua». Antzinatik datorren ildo baten jarraipena deskribatzen du poetak testuan. Iraupena, eta baita desagertpenaren arriskua ere. Egaña-Eneaz ari da, baina ari da euskarari buruz ere. Eta kokatu, horma horien artean kokatzen du dilema. Zarautzen, Nafarroa kaleko 7. eneko etxe horretan. Etxe honetan.

Oroipen txoriak

Hiriaren iraganaz mintzo da etxea: hiru eta lau solairuko eraikin artean geratzen den etxe itxurako bakarra da. Turistak ekarri eta turistak eramaten dituen errepidea aurrean, Torre Luzeako parkearen lasaitasuna atzealdean. Lizardiren eskultura bat eta Basarriren beste bat bertan, eta iturri bati darion uraren bakea. Hortik ikusten da etxeko lorategia. Arbaso zaharren baratzea, alegia. Dorre Luzea sail osoa hartzen zuen garai batean Lizardik ezagututako lorategiak, eta hori da poemari deskribatzen dena, baina 36ko gerraren ostean miseria baten truke saldu behar izan zituzten hurok, eta etxeko lorategia da egun Egaña-Eneari lotuta dagoen bakarra. Zuhaitz batzuk bertan, loreak, eguzkitako bat, eta etxera sartu ahal izateko atea parez pare zabalik. Inor ez, begi bistan, ordea. Poetak ezagututako etxe bera, poetak ezagutu ga-

beko garai batean. Joandakoaz mintzo da Lizardi ere: «Sar eta... zuaitz yantziak. / Urrats bat egin, ta... adar uts. / Oroipen-txoriez zeuden / beterik: ni ikus ta, bat-batean, / egoei eragin ziten / (...) Urte yoanen zitala! / Zuek zarpildu-itzalia / lénara nork lekardake? / Zabal-naroa nuen baratza, / gaur ain estu, gaur ain gabe!».

Etxe konkretutik, etxe zabala-gora doa poeta. «Benetako gertakari eta sentimenduen inguruan eraiki zuen bere olerkigintza [Lizardik], hots, bere begientzat eta bere bihotzarentzat egia ezaguna zena hartu zuen olerki oinarritzat, abiapuntutzat, egi konkretu eta txiki horien bidez egia nagusi eta ezezagunera hurbiltzeko helburuz». Hala deskribatzen du Lourdes Otaegi ikerlariak *Asaba zârren baratza*-n gertatzen dena. Amona da poemako protagonista. Lorategi erdian, burua erdigalduta ageri den amona, zehazki. «Baratz erdian dut arki / amona: alderoka dator, / begi galduak noranai... / Eriotzak dakar besalagun, / bere buruz ezpaitagai».

Lizardiren kezka kultural nagusiaren sinbolo da etxe hori. Euskara ikustendu etxe hori ikusten duenak. Otaegik bere doktore tesian dioenez, gurasoen eta ingurukoekin erdal giroan hazitako Lizardirentzat, hizkuntzarekin lokarria irudikatzen du amona horrek. Eta erreala da anekdota. «Amona, zahartzaroan, inor ezagutzen ez zuela egon zen, zahartzaroko eromenak jota, eta olerkaria gizon eginik ezagutu ez bazuen ere, haren semea bai eta hari euskaraz aritu omen zitzaion amona, Lizardi bera zelakoan». Eta sorpresa hori da Lizardiren poemaren funtsa. «Ta, ara, bidean, baldarño, / muttiko bat guregana: / ark birbilloba, nikseme. / Ikus amonak, bertan gelditu, / ta aren eztizko irribarre! / Laztan du, pozak zorutzen: / 'I aut, orain akust ongi!' / (diotsa) 'I aut, bai, Olako!...' / Ta... nere izenez igurtzi zuen / búrutik ofietaraño. / Lén zegoen orañaz / ele gozoka. Bitzuok / mintzo beraz ziarduten. / Ene asaben lokarri zârta, / Yau-nari zor, etzan eten!».

Horixe Lizardiren baratzea. Hauxe. Harriek beste mantentzen dute olerkariaren hitzek zutik gaur egun ere. «Baratz zârren antzalda! / egi, mami, biur adi: / lénaren muñiak aldatu beza / baratz zârta baratz berri!». Hori xe poetaren ametsaren latitude zehatza. Eden puska bat salgai.

BIHAR

Martin Larralde eta Joseba Sarriandariaren Hazparne



sortu zuen bere poema ezagunetarikoa bat. Atzean Uzturre mendia ageri da. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS

UDAKO
SERIEA

Kantuan diren lekuak (III) • Badaude hitz egiten duten lekuak, eta badaude ibil daitezkeen hitzak. Hazparneko Elizaberri auzoan gurutzatzen dira Martin Larralde bertsolariaren eta Joseba Sarrionandia idazlearen erbesteak. Herri horretan ageri dute beren deserria.

Eta itzuli balitz...

Iñigo Astiz Hazparne

Galdera bat dago erdigunean: «Itzuli izan balitz, zer?». Alderik alde gurutzatzen du galdera horrek Joseba Sarrionandiarren *Martin Larralde* poema; alderik alde zeharkatzen du galdera horrek Martin Larralde *Bordaxuri* bertsolariaren bizitza; eta alderik alde hartzen du galdera horrek paisaia hau ere. Oskarbi, eder, mendiz inguratuta, igandea da gaur Elizaberri auzoan, Hazparnen (Lapurdi). Hau da Sarrionandiak deskribatzen duen paisaia, berde, zuri eta gorri, euskal literaturako ikurrinik ezagunetarikoa bat margotuz. «Larre berdeak, etxe zuri teila gorriak, jendarme auto bat/ bidean bildots artean pasatzen./ Etxe elizetan otoitzak,/ betiko otoitzak neguko kearen antzera/ leun igotzen./ Martin Larralde ez da sekula itzuli,/ baina itzuli balitz...». Hemen sortu zen Larralde, 1782an, eta han hil; galeretan, 1821ean. Bizi daude oraindik, ordea, haren bertsoak Hazparnen. «Kantatzera niaz/ alegera gabe/ Ez baitut probetchurik/ trichtaturik ere;/ Nehun deusik ebatsi,/ gizonik hil gabe,/ Sekulakotz galerak/ enetako dire». Erbeste horrek egiten du oihartzuna hemen, Larralderenak eta Sarrionandiarrenak. Herri honetan gurutzatzen dira bien deserriak. Kantu honetan. Badaudelako hitz egiten duten lekuak, eta ibil daitezkeen hitzak.

«Gutxitan gertatzen da poeta honena bezain bizitza poetikorik, eta nekez topatuko dugu gure literaturan egilearen bizitza pertsonalari horren lotua dagokeen poesiari». Joseba Sarrionandiaz mintzo da Koldo Izagirre idazlea, XX. mendeko poesia kaierak bilduman hari eskañitako alean. Baina mintzo zitezkeen Bordaxuriz ere. Uztartuta baitaude bien kasuan bizitza eta literatura. «Poesiaren bidaiaria dugu Sarrionan-

dia, eta poesia da bere erresistentzia antolatzeko lekua, esan liteke herensugearen aurkako egitate-rik egokiena burutzen duela poemak bitartez, poemek bakarrik eskaintzen diotela libre izateko modu bat. Hitzak, izan ere, indar liberatzaile handia du hemen». Autorretratu bat ere bada horregatik Sarrionandiak Larraldez egiten duen deskribapena. Bere buruaz ere mintzo baita Sarrionandia, Larraldez mintzo denean.

Lehen harri, orain kantu

Kantua baino ez da orain lehen harri zena. Hitzek baino ez dute jadanik eusten Larralderen etxea Hazparnen, baina eusten dute, halere. Zazpi gizon auzoko ostatu bakarrean hizketan. Etxeaz galdetu, eta azkar dator erantzuna. «Zer da, Plumaieneko premuaren kantuagatik?». Kantu zati bat ere kantatu du gero, baina etxearen kokapenaren arrastorik ez. Ostatuaren jabeak gehiago daki. «Plumaienea ez da gehiago». Eta itzulpena gero frantsesa baino ez dakien beste zerbitzariari: «*Il cherche une maison*». Eta bai, baina ez. «*Il cherche une chanson*». Plaza nagusitik bi kilometrorra, belarrak jandako frontoia- ren ondoan, bide komunal baten bazterrean, sastraka eta zuhaitz baino ez da orain Larralderen sortetxe izandakoa. Ume zenean ere erdi abandonatuta gogoratzen du 80 urteko Mayie Lohiagerek. Gogoa du kantua, ordea, inoiz etxe izandako zelaian. «Mila zortzi ehun eta/ hamabortzgarrena/ Ni Ahazparnen preso/ hartu nindutena;/ Plumaieneko premu/ orok dakitena,/ Galeretan higatu/ beharko naizena».

Etengabea da tentsioa Sarrionandiarren beste poemetan ere. «Nekez uzten du bere lurra zuhaitzak/ ez bada abaildu eta oholetan./ Ez du niniak begia uzten/ ez bada erroi edo arrubioen mokoetan./ [...] Nekez uzten du bere sortetxerria/ sustraiak han dituenak». Ezin erabat joan, baina ezin erabat itzuli: «Itsasoaz bes-

taldera joan ziren eta/ ez dira egundo itzuliko./ Izurdeek gidatu lekuraino baino/ ez ziren ailegatu./ Itsasoak bere sare larrietan/ gatibatu ditu./ Eta inoiz itzuliko balira ere, iadanik,/ ez dira joan zirenak izango». Eta ezinezko espazio horretan kokatzen da *Martin Larralde* poema ere, eta ezinezko espazio horretatik kantatzen ditu bere bertsoak

Bordaxurik ere. Deserritik herrira dabilta biak kantuan.

Gizon bat hiltzeagatik eraman zuten preso Bordaxuri, baina ezetz dio berak; berak ez zuela inor hil, Plumaieneko premu izateak kondenatu zuela. Izan ere, ama hiltzean, haren etxe parte eskatu zion bertsolariak aitari, baina

hark eman nahi ez, eta tenkatuz joan zen soka. 1815eko ekainaren 27an gertatu zen ezbeharra. Egun hartan tirokatu zuten Jean Ospital, Larralderen aitak baimenduta Plumaieneko lurretan belarretan ari zela. Bizkarretik eraso zioten, eta Larralde jo zuen errudun epaitegiak. Horregatik eraman zuten galeretara, eta horregatik



Hazparneko Elizaberri auzoko plaza nagusian dagoen pilotalekuaren atzean dago Larralde bere bertsoetan amorrut

hil zen etxetik urrun. Sastraka eta zuhaitz hauetatik urrun, alegia. Familiaren konspirazio bat izan zela iradoki zuen Larralde epaiketari, eta akusazio bera egin zuen bertsotan ere. «Ala zorigaitzeko/ premu izatea! Horrek eman baiteraut/ bethikotz kaltea, Aitari gald'eginik/ sortzeko phartea/ Galeretan eman nau, hau da ene dotea.// Ene aita da gizon/ kontsideratua.// Semia galeretan/ du segurtatua.// Nun nahi othoitzean/ belaunikatua, Saindu iduri, debru madarikatua».

Preso geratu den erretratua

Sasoi honetan izan zen. Leku honetan. 1815eko uztailaren 4an ikusi zuen azkeneko sorterrria Larralde. Hemendik ikusten dena da hark azkeneko ikusi zuena. Egun hartan atzeman zuten jendarmee. *Www.bordaxuri-epaiketa.com* orrialdean ikus daitezke orduko jatorrizko

dokumentuak, eta han irakur daiteke bertsolariaren deskribapena ere. Jendarmeen begietan heldu da gaur egunera arte haren erretratua. Preso, ia, preso hil zenaren aurpegia ere. «Bost oineko altuera du Larralde, ile eta bekain beltzak, kopeta estalia, begi marroiak, arrano gisako sudurra, aho ertaina, kokotz zorrotza, azal ilun eta orban horixka batzuk». Eta izoztutako irudi hori baino ez da egun Larralderen aurpegia. 1985eko uztailaren 7an baffle batean ezkutatuta egin zuen ihes Sarrionandiak Martuteneko kartzelatik, eta erbestean bizi da geroztik. Zori arrastorik ez du horregatik Martin Larralderen aipamenak haren poemen artean. «Martin Larralde ez da sekula itzuli, baina itzuli balitz/ (arantzak barrurantz itzuliak lituzkeen/ sagarroia bezala).../ Itzuli izan balitz, zer? Gaur igandea da».

Unikornio baten irudia duen

globo bat flotatzen, kristal handiko etxe moderno handi batean. Ikur bat da ia: herrian uda giroa dela esan nahi du, eta heldu direla udako hazpandarrak. Beteta orain, luzez hutsik egon diren eraikinak. *Argi tirrinta, Manexenia, Bihotxenea, Dorria...* Etxe

Haririk ere ez dago egun Martin Larralde 'Bordaxuri' bertsolariaren sortetxea egon zen lekuan; kantua soilik

Larralderen erbestearen bidez deskribatzen du Sarrionandiak bere deserria ere, eta oihartzun egiten dute haren hitzek herrian

izen horien babesik gabe idatzita-koak dira Larralderen bertsoak. «Kantu hau eman ditut/ Paubeko hirian, Burdinez kargaturik/ oi presundegian, Bai eta kopiatu/ dembora berian, Orok khanta ditzaten/ Hazparne herrian». Eta

etxe izenen babesik gabe idatzita-koak Sarrionandiaren lerroak ere. *Hnuy illa nyha majah yahoo* poema bildumaren bigarren edizioarako egindako hitzaurrean azaltzen du: «Errealitate gabezia horretatik abiatu nintzen idazten, hizkuntza sekretu eta badaezpada-ko hau besterik ez nuela, eta neu ere ez nintzela ia ezer». Kasik kantutu huts, bera ere.

Hizkuntza leku

Argi dio Sarrionandiak: hitzak izan daitezke leku. Dioenez, hizkuntza izan du hark etxe. «Herbestera hizkuntza eram nuen, ezer gutxi gehiago. Neure baitan besterik egin ezin arren euskaraz, hizkera klandestino horixe bihurtu zitzaidan idazteko leku. *Leku*-ren ordeza *aberriesan* zitekeen, susmagarria ez balitz aberrik ez duen jende-

ak hitz hori erabiltzea, bestela oso normalizat eta are dotoretzat hartzen delako, Rudyard Kiplingek edo Fernando Pessoa erabilia, esate baterako. Herbesteko bizieraz pentsatzeko eta idazteko leku bihurtu zitzaidan orduan neure hizkuntza gordea, baina ez leku erabatekoa eta segurua, baizik eta osatu eta ia asmatu beharrekoa».

Ezarian doaz hodeiak orain herri gainean, etxe artean beren itzalak paseatuz. Bare, baina ekaitz promesarekin. Zerurantz begira amaitzen du Bordaxuriri buruzko poema Sarrionandiak. «Jendea familia erretratueta bezala/ larritasuneraino/ perfumaturiko arima erakutsiz doa mezarra. Inork ere ez du/ (dena ohitura, dena errua, dena barkamena)/ oroimenaren/ korapiloa deslortzen. Inork ere ez du/ koblakaririk behar.../ Martin Larralde honelako egun batez hil zen/ galeretan, begiak zabalik etzanda, agian, zerua/ itsaso zikin bat dela esanez». Gaur igandea da, eta zabalik da plazako kapera, baina turistak baino ez daude han. Haien tzat ireki dituzte ateak. Haiek daude orain Larralde herriarrez beteta ezagututako kaperan. Hemen esertzen zen galeretan amaitu zuen gizona, hemen galeretara kondenatu zuen familia, eta hemen ditu sustraiak haren haserreak. «Elizan sartzen dira/ debozionerekin, Iduriz badohazila/ saindu guziekin/ Beren liburu eta/ arrosarioekin, Debruyak phesta onik/ einen du heyekin».

Itsaso zikin bat

Mezarik ez orain. Mutu daude eliza kantuz betetako liburuak atarian eta koruan. 1686an atxatutako eraikinari buruzko azalpenak irakurtzen dabiltzan bisitarien ahotsa baino ez da aditzen, eta ezkontza baten apaingarriak daude aulkietan. Jesu Kristoren irudi bat albo batean, bere izkribu hautsiarekin: «Filius do/lorosus». Eta hirutasun saindua ageri duen XVII. mendeko erretaula barrokoa aurrealdean: Espiritu Saindua, aita eta semea. Aingeru buruak haien inguruan. Aingeru buru mordoak, begiak zabalik, erretaulako zerua nahasten. Zeru hori itsaso zikin bat dela esanez; agian, zerua itsaso zikin bat dela esanez. Hemen elkartzen dira Sarrionandiaren eta Larralderen kantuak; hemen gurutzatzen dira bien erbesteak. Hemen ere badago inon ez dagoena.

BIHAR

Joxepa Antoni Aranberri 'Xenpelar' bertsolariaren Erreterria.



aipatzen duen eliza; han igartzen da oraindik haren bertsoen oihartzuna. SYLVAIN SENCRISTO

UDAKO
SERIEA

Kantuan diren lekuak (IV) • Badaude hitz egiten duten lekuak, eta badaude ibil daitezkeen hitzak. Bestelako bertsogintza bat eta bestelako Erretereria bat pasea dezake, adibidez, Joxepa Antoni Aranberri Petriarena 'Xenpelar' bertsolariaren doinuetan dabilenak.

Emakume zen Xenpelar

Iñigo Astiz Erretereria

Jeneralian erretratuan / ikusten da familiya, / jostundegi edo lantegietan / berriz jende gazteriya; / alde ortatik ez naiz ibilli, / esango diet egiya: / pentsatu nuen neskazar bati / egitia konpañiya». Erretereriako jostundegiko neskekin erretratatu zuen bere burua Joxepa Antoni Aranberri Petriarena *Xenpelar* bertsolariak (1865-1943), eta bertsoa ere jarri zion irudiari. Ibiltzeko zail diren lurak dira haren kantuak ikusten uzten dizkigunak. Gutxiñan bisitatu ahal izan den koba batean ezker-eskuin hazten diren estalakita eta estalagmitak balira bezala. Hitzez hitz, tantaz tanta. Plazako bertsogintzaren gerizpean egon den bertsogintza erakusten dute; emakumezkoena. Frantzisko Petriarena Rekondo *Xenpelar* bertsolari (1835-1869) ezagunaren iloba, harekin bertsotan aritzen zen Maria Luisa Petriarena Rekondoren alaba, fabrikako langile, jostundegiko bilkuretako bertsolari... Xenpelar izan zen Joxepa Antoni Aranberri ere, baina Xenpelarren sonarik gabe. «Nere denboran izandu diyot / afiziyua kantari, / iñon bertsorik azaltzen bazen / eosi ta irakurri; / umore ona lagun artean, / ori gustatu zait neri». Gerizpeko mundu horretan ibil daiteke Erretererian Xenpelarren bertsoak ezpainetartzen dituen. Badaudelako hitz egiten duten lekuak, eta ibil daitezkeen hitzak.

Emakume zen Xenpelar da Joxepa Antoni Aranberri, eta besteren itzalean jarri ditu luzez oinak horregatik. «Xenpelar, izan ere, bertsolaritzaren zimendu eta giltzarria degu. Arek idikitako bideetatik ibili dira geroztikako bertsolari geienak». Antonio Zabala ikerlariaren hitzak dira, *Xenpelar eta bere ingurua* liburuan datozenak (Sendoa, 1993). Frantzisko Petriarena Rekondo ari da bera Xenpelar aipatzen duenean, bai-

na ari zitekeen Joxepa Antoni Aranberri ere. Xenpelarrez, alegia, Xenpelarrez aritu beharrean. Osabaren modura, urratzaile izan baitzen iloba ere. Horregatik eskaini zion Estitxu Eizagirre kazetariak emakumezko bertsolariei eskainitako *Bidea urratu duten bertsoak* liburuko bigarren biografia, adibidez. «Bilduman agertzen diren bertsolariek bazituzten bertso hobeak ere, lehendik asko zapaldutako bideetan boteak. Urratzaileen bila atereak gu, ordea». Eta horregatik Aranberriren aipamena bertan; urratzaile izan zelako. Bidegile Xenpelar, beraz, eta bidegile Xenpelar ere. Eta neurri batean, Erretereria ezberdina da bakoitzaren hitzen atzean igar daitekeena.

Plazako Xenpelar

«Atoz gure kalera / baserritar legera / musika hoiek utzita; / Erretererian bizi naiz eta, / egin zaidazu bisita». Errima horrekin bukatzen da Xenpelar osabaren bertsorik ezagunenetariko bat, eta, hura hil eta 45 urtera, oraindik ere bizirik da doinua Erretererian. Plaza giroko bertsogintza deskribatzen du, eta orain ere bada dago herriko plazan haren oihartzuna bisitatzerik. Hiri erdialdean dago Xenpelar izeneko plaza, eta eskultura bat ere jarri diote gainera. Metal gorriko zuhaitz bat. Haren gerizpean, kale saltzaile batzuk eta neska talde bat hizketan. Bi xenpelartarretan zaharrenari eskainitakoa da eskultura eta baita plaza ere: gizonezkoari. Izan ere, Xenpelarren osteko Xenpelar baita oraindik ere Aranberri. Xenpelarren itzaleko Xenpelar.


Kapitulu betea eskaini zion, halere, Zabalak Aranberriari *Xenpelar eta bere ingurua* liburuan. Herriko etxeetako bazterretako orri puska guztietan bilatu zituen haren bertsoak ikerlariak, eta liburuan bildu zituen denak. Zabalen hitzetan, gainera, Xenpelar osabaren lanak ezagutu ahal izateko klabea izan zen Xenpelar iloba. Izan ere, Joxepa Antoniri es-

ker dira oraindik ezagun Frantziskoren kanta batzuk; ilobak jostundegian abestu, eta kide zituen emakumeek ere ikasi zituztelako. Hari zor zaio, adibidez, *Aizak hi mutil, mañontzi eta Pa-*

saiako plazatik bertsoen iraupena. Kapitulu da, halere, Aranberri, Zabalen liburuan.

Gehiago ere merezi zuen, ordea. Hori dio Elixabete Perez Gaztelu Deustuko Unibertsitateko

irakasle eta ikerlariak: «Inoren ez-dakit-zer izan gabe, bere lekuaren jabe da». Horregatik idatzi du orain hari buruzko liburua, eta sarean jarri du osorik: www.erretereria.info/files/Joxe-



Erretererian, Frantzisko Petriarena *Xenpelar* bertsolari eta Joxepa Antoni Aranberri Petriarena *Xenpelar* bertsolariaren osabari

pa_Antoni_Aranberri.pdf. «Zabalak Joxepa Antoni Aranberri Petriarenari kapitulu bat eskaini zion Xenpelarri buruzko liburuan, haren iloba zenez, eta nire helburua izan da hura adar izate-tik bere lekua izatera eramatea».

Izenaren geografia

Xenpelar. Geografia zehatza du izenak. Errenteriaren eta Oiar-tzunen mugan dago Senperelarre izeneko gunea. Han eraiki zuten etxea petriarenatarrek 1820an, eta handik hartu zuen izena Fran-tzisko Petriarena Rekondok. Hor-txe Xenpelar osabaren sustraiak. Baina bestelakoa da ilobaren ka-sua, emakumezkoarena. Bazuen Xenpelar baserrikoen odola, eta handik hartu zuen berak ere ezi-zena. «Adios Juliana/ adios beti-

ko, / Xenpelarrek etzaitu / geiago ikusiko; / bañan zu aztutzia / ori ez du naiko, / amak eskutitzto bat / dizu bialiko: / Xenpelar il de-la ta / enkomendatzeko». Inoiz ez zuen harreman zuzenik izan, ha-lere, baserri harekin. Kanean sor-tua, kanean hazia, eta kaleaz ari-tua; industrializaziorako jauzian den Errenteria ageri da haren kantuetan.

12 urterekin hasi zen fabrian, eta estua zen bizimodua, Perez Gazteluren liburuan biltzen de-nez. Agustin Mendizabalek *La pequeña Manchester* liburuko hitzaurrean bildutako datuak ai-patzen ditu ikerlariak giroa des-kribatzeko: «Ehuleen artean, 1864an jaiotako bizi itxaropena 23 urtekoa zen eta nekazariena berriz, 44'3 urtekoa [...] Umeen

heriotza tasa ikaragarria zen, eta tuberkulosia zen hiri barnean he-riotza kausarik ohikoena; ema-kumeak, bestalde, gizonezkoak baino are gazteago hiltzen ziren, batzaz beste. Osasun eta bizi bal-dintzak, goi-maila sozialekoak ez zirenentzat oso gogorrak ziren». Eta ehulea izan Xenpelar. Ehulea, eta emakumea. Bere bizitzako az-ken 20 urteak itsu eman, eta 1949an hil zen.

Gosearen doinua

Gosearen bertsoak. Hala izenda-tu ditu Eizagirre kazetariak Xen-pelarrek 1942-1943ko gosete ga-raian idatzitakoak. Fabrikako bertsolaria da hor ageri dena. «Gure lantegi handi horretan / pasea urte gehiena, / Migel Mari da, horixe dugu / denetan zaha-

rren-zaharrena; / bigarren, berriz izenik gabe / denek ondo dakite-na». Lau bertso dira, orotara, fa-brikako nagusiari zuzendutako-ak guztiak; goseak piztutakoak denak. Bagues jaunak langileen artean banatu ohi zituen Markola mendiko lurretan ereiten zituen patatak, baina banaketan bertso-laria ahaztu, eta horregatik idatzi zituen bertsoak Xenpelarrek; es-kearen eta salaketaren arteko oreka zailean. «Hirurogei bat urte aldean, / oso ez badira ere, / gure lantegi handi horretan / lana eginak gerade, / uste dudanez bi gizonekin / bost bat emakume gaude; / Bagues jauna, ez haserre-tu / bertsoak gaizki badaude».

Gosea ahoratzen du bertso ho-riek ezpainetaratzen dituenak. Eizagirrek: «Bertsoa oso lotuta dago jendartearekin. Garaian-garaian bertsoa egunerokoaren kro-nika izan da». Eta hori da Xenpe-larren hitzek erakusten duten egunerokoa. Baina, hain zuzen ere, gizonen bertso egunerokoaz bestelako eguneroko bat erakus-ten digu Xenpelar honek. Beste

Piztutako bertsolaritzaz bestelakoa da Joxepa Antoni Aranberriren bertsoetan igar daitekeen bertsolaritza

Osaba zuten Frantziako Petriarena 'Xenpelar' bertsolaria den ezizen bera erabili zuen Aranberri bertsotan

Aranberriren kanta gune nagusi izan zen Santxoenea kaleko jostundegiaren arrasto handirik ez da geratzen

Xenpelarrenaz bestelako paisaiak dira Xenpelar honen hitzekin pa-sea daitezkeenak. Jostundegiko giroa, adibidez. Han aritzen bai-tziren ikastera joaten ziren neska gazteak, irakaslearekin hizketan eta kantuan, Xenpelarren, Txirri-taren, zabaletarren eta beste hamaika bertsolariren bertsoak abesten. Eta hantxe egoten bai-tzen Joxepa Antoni Xenpelar ere. Santxoenea kaleko 25.ean. Egun Xenpelar deitzen den plazaren atzealdean. Hortxe, emakumez-koen plaza. Hemen.

Emakumezko Xenpelar haren arrasto handirik ez da ageri egun: oihartzun ahul bat. Orain hamar urte inguru berrituta dago hiru solairuko eraikina, harribitxi denda bat etxabea, botika denda handi bat, eta oharra atarian: «Ez dugu propagandarik nahi». Be-rriegi dena Xenpelarren bertsoen oihartzuna mantentzeko. Baina

kale bereko 23.ak oraindik gorde-tzen du zurezko terraza zahar bat. Bertan, etxabeko okindegian 60 urte inguruko bost emakume croissantak eta kafeak hartzen, hizketan, gutxi gorabehera Joxe-pa Antonik ezagututako leku be-rean, gutxi gorabehera giro alai bertsuari, baina Santxoenean jos-tundegirik izan zelako arrastorik izan gabe. Izpi txiki bat baino ez: «Maniki batzuk izaten omen zi-ren erakusleihoan, amantal bat-zuekin». Desagertutako zerbait da Xenpelarren bertsoetan igar-tzen dena hemen.

Aurrekoaren ondorengo

«Progratu dezu bertso abekin au-rrekoan ondorengoa zerala». Se-kulakoak eta bi bota zituen ez-kontzen ez ziren nesken aurka Enrike Elizetxe bertsolaria. 1902an *Ibaizabal* aldizkarian da-toz haren bertsoak. Etsita deskri-batu zituen, aurpegi zimur, min-gain luze, begi zorrotz, hezurak gogor, zital, marmarrean, beti eli-zan eta errietan... Errenteriako emakumeei hori batere gustatu ez, eta konbentzitu egin zuten Xenpelar: erantzun egin behar zi-tuen bertso haiek. Hark onartu, eta eskutitzez helarazi zion eran-tzuna Elizetxeri. Hark irakurri, eta *Ibaizabal* aldizkariara bidali zi-tuen gero. Xenpelarren lanik eza-gunenetariko bat da egun, eta buelta horiekin egin zuen Xenpe-larrek etxe girotik plazarako jau-zia ere. «Neskazaharraren izenak denak / dituela ikaratzen, / horien jabe egin ezkeror / egongo dela erretzen, / zerbait dutenak izana-gatik / ez hasteko hoiek hartzen... / guretzat beste disparaterik / ez al zaizu gogoratzen?». Eta bertso horien osteko komentarioan utzi zuen idatzita Elizetxek esaldia al-dizkarian: «Progratu dezu bertso abekin aurrekoan ondorengoa zerala». Xenpelar bazela Xenpe-lar, alegia.

Aldizkarietan argitaratutakoez gain, zimendu handirik gabea da halere Xenpelarren bertso gehie-nei eutsi dien soka. Perez Gazte-luk azaltzen du: «Nahiz eskribau lana Antonio Zavala gizasemeak egin, Joxepa Antoni bertsolaria-ren berri dakigu batez ere emaku-meek gorde dutelako gogoan. Es-timatzekoa da eta, seguruenik, gutxiegitan aitortua, emakume-ek transmisioan (etxeokan batez ere) bete izan duten lekua». Ia le-ku izatera heltzen ez den leku ho-ri da Xenpelarren bertsoetan igar-tzen dena. Ahoz ahoko haize hori. Ahoz ahoko haize hau.

BIHAR

Gabriel Arestiren Bilbo.



eskainitako plaza eta eskultura. ANDONI CANELLADA / ARGAZKI PRESS



UDAKO
SERIEA

Kantuan diren lekuak (V) • Badaude hitz egiten duten lekuak, eta badaude ibil daitezkeen hitzak. Egungo Bilbo ulertzeko balio du horregatik Gabriel Arestik deskribatutako Bilbok. Mingarri eta gatazkan ageri dira kaleak haren hitzetan.

Okerbideak ez baitaki mintzaerarik

Iñigo Astiz Bilbo

Bilboko zimaurretégian/ lore bat/ aurkitu nuen». Horra aurrera jarraitu ahal izateko edertasun dosi minimoa. Salbuespena da lorea, baina horri heldu behar, bestela, etsigarria izan baitzen Gabriel Aresti Seguroak (1933-1975) egindako saiera. Profetikoa. Bilboren aurka eraiki nahi izan zuen Bilbo. Mingarri zitzaion

sorterri zuena; erdalegi euskal hiri nahi lukeena, eskuinegi euskal giroa eta erdalegi ezker munda. Baina Francoren diktadura peko lur labainkor horretan igarri zuen bere mandatua, eta lur horri eskaini zizkion bere poema ederenetariko batzuk. «Zergatik metitu ote naiz/ halako enplego txar batean?/ Zergatik sartu ote nituen/ sudurrak/ hain kirats txarreko/ zer-egin honetan?/ Baina zergatik?/ Eznintzen ni ederki bizi/ Bilboko hirian./ gaztelaniaz/ hispanidadean? Baina ez». Talka horre-

tan ditu sustraiak haren idazkerak, eta *Harri eta herri* liburua argitaratu zenetik 50 urte bete diren honetan, oraindik ere pasea daiteke hiria haren hitzetan. Badaudelako hitz egiten duten lekuak eta ibil daitezkeen hitzak.

«*Hau da Bilbo* esan zuen gizonak./ Kapela zuria zeraman gizonak, eta/ *Hau da Bilbo* esan zuen. *Hau da/ Pinturaren Museoa*, esan zenuten./ *Peut-être*, esan nuen, eztaikit./ Eznenkien. Ta zer? Eznaiz lotsatzen./ Zergatik burjesa egonen da/ museo honetan izenez, laudorioz./ (Halako

konteak eman zuen pintura hau),/ pilotuaren eta marineruaren/ izenak/ hilobi baten gainean eztaudenean?». Arte Ederren museoan sartzen da Aresti liburuko bigarren poeman. Eta hor marrazten du talka. Zapalkuntza igartzen du poetak, baita lore artean ere. Hitz horiekin hasten da *Souvenir d'Espagne pour mesdemoiselles Solanje et Helena Gereziaga* poema. Eta nabarmena da haren oihartzuna oraindik ere hirian. Jar daiteke urratsa Arestiren ahotsaren gainean. Oraindik ere hori baita Bilbo, finean, kanpotik heldutakoentzat, museo bat. Bi museo. Arte Ederrena bata, eta Guggenheim bestea, Arte Ede-

rren museoari itzal egiten diona. Eta turistak orain ere bietan *souvenir* eske. Euro batean postalak, 20 euroan poltsak, garestiago harribitxiak. 35 graduko tenperatura kalean.

gizitoki den salaketa

«Guri orain Bilbo bizigarri egiten bazaigu eta ez gorrotagarri, neurri handi batean Arestiri esker da». Karmelo Landaren hitzak dira, 2005ean Patxo Telleriak zuzendutako idazleari buruzko *Diot dokumentalean* esandakoak. Literatura irakasle da Landa, eta baita Arestiren lanean aditu ere. Hura izan zen Susa argialetxeak idazlearen lanekin osatutako bilduma bultzatu, eta orain urte batzuk Bilbon Arestiri eskainitako ibilbide gidatua osatzen lagundu zuen pertsonetariko bat. Argi dio: balio du oraindik ere Arestik amestutako Bilbok egungo Bilborentzat. Eraiki daiteke hiria haren hitzekin, eta bizigarri da haren salaketa. 1968ko hitzaldi batean hitzez hitz esandakoa, adibidez: «Bilbo ez da inoiz ona izan artis-



tentzat, bai ordea politikari eta ekonomistentzat».

Eta berriz poemara: «Zer da hori? Seinalatu zenuten leihotik./ Deustuko Eskola. Jesuitena./ Ez, hangoa. Egurrezko etxe haek./ Ijitoak, esan nuen lotsaturik./ Hurrutian entzuten zen trumoa./ Grekoa. Goia.» Desagertuak dira Arestik deskribatzen dituenak. Txabolarik ez jadanik Deustuko Unibertsitate gainean; basoa, jauregi bakar batzuk, eta eroritako baserri bat baino ez. Industriadik turismora irauli dira Arestik ezagututako kaleak, eta Frank Gehry arkitektoak eraikitako museoa dago egun, idazleak langilez eta itsasontziz beteta ikusitako portua zegoen lekuan. Europa parkea izeneko orain museo aurrean, kristalezko Iberdrola dorre erraldoia, eta haren kristalak garbitzen garabitik zintzilik garbitzaille flimifioa. Baina bada orduko Bilborik egungo Bilbon ere. Arestiren hitzek mantentzen dute bizirik haren oroitzapena.

Museoko hormetan igar daiteke-elako oraindik ere Arestiren hase-rra. Bertan eskegita Grekoa. Bertan eskegita Goia. Bertan, Arestiren trumoa.

Kristo gurutziltzatu erromani-koak, pietateak, giza eskultura klasikoak, zeta finez apaindutako neska eder bat bahitzen duen zezen zuria... Aretotako isiltasunean igar daiteke oraindik poeman deskribatutako ezinegon. Orduko bezain oraingo da hor Aresti. Nabarmen, koadroen alboko azalpenetan. «San Nikolaseko Maisua. Olia intxaurrondo oho-lean, Manuel Taramona jaunaren alargun Mercedes Basabe anderearen dohaintza 1943an». «Martin de Vos. Anberes, Belgika, 1532-1603. Europaren bahiketa, 1590. Horacio Echevarrietaren dohaintza». «Pedro Orrente, Issaken sakrifizioa, 1616. Luis Castells Toha jaunaren dohaintza». «Nicolas Solana. Igokundea, 1401-1441 artean. Laureano de Jado jaunaren legatua, 1927an. Zaharberritzea 'Iberdrola Fundazioa' -ko laguntzari esker». Turisten poza aurrerago, Aureliano de

Bernate artistaren paisaiaren aurrean. «C'est Basque!». Eta lagunak ere baietz, sortzailearen abizena begitan. «Oui, oui, c'est Basque». Horrekin guztiarekin apurtu nahi zuen Arestik, eta hori da apurtzea lortu ez zuena.

Bertan den erbestea

Barne erbestean deskribatzen du idazlea bere sorterrian Koldo Izagirrek, irla baten modura, *Harri eta herri* liburuari egindako hitzaurrean. Bilbo barruan, eta, aldi berean, Bilbotik kanpo. «Lurralterik gabe idazten du Arestik ere, idazlea bera da uharte, eta bere herriaren maitasunez egiten ari den ahalegin gaitzak barne-erbestea dakarkio, 'beste' hizkuntza bat hautatu du, 'beste' gizarte bat amesten du». Eskuin zen euskal giroa ezker bihurtu nahian, ezker mundua euskal bilakatu nahian, eta erdal zen hiria euskal egin nahian. Azken borroka horretan kokatzen du idazlea Xabier Kintana euskaltzainak ere, *Gabriel Aresti, luma zikina* dokumentalean. «Konturatzen zen Bilbok, euskararen galtzaile izan

zen bezala, euskararen susper-tzaile izan behar zuela. Euskara ez zela salbatuko Gernikan egiten zelako, baizik eta Bilbon egiten hasiko zenean. Eta nahiz eta Bilbo madarikatu, Bilboren alde egiten zuen aldi berean».

Fantasmaz beteta dago Zorro-zako portua. *Jaelmac, Otevisa, QAP...* Mamu izenak dirudite ibaiertzean abandonatutako den-den eta fabriken izenak. Hormak erdi erorita, zerua sábai. Isil giroa lan egunez, paseora eta korrika egitera joan diren herritar batzuek ez bada. Beste nonbaitekoa dirudi hor Arestiren ahotsak, baina bertakoa da. Hortxe Arestiren gudu zelaia. Bertan kokatzen baita haren poemarik ezagunenetarikoa bat, eta baita haren aldarririk ezagunenetarikoa bat ere. «Beti paratuko naiz/ gizonaren alde».

Irauli egin du turismoak industria Bilbon, baina oraindik igartzen da Arestik ezagututako hiriaren oihartzuna

Erdal ikusten zuen hiria euskal nahi zuen Arestik, eta tentsio horretan mamitu zituen bere poema asko

Egun abandonatutako mamuz betetako gune bat da idazleak langilez lepo ezagutu zuen Zorro-zako portua

Herri girotik hiri girora eraman zuen hor Arestik euskal poesia. Baserritik lantokira. Jainkoari eta aberriari begira egoteari utzita, langileen izerdi konkretuari erreparatu. Eta horregatik irainak eta horregatik nekeak. «Aleman barkua atrakatu da Zorrotzan./ Zimentua dakar, ehun kiloko sakoetan./ Bien bitartean/ Anton eta Gilen zeuden/ zerrarekin/ tronko hura erdibitzen./ Sokarekin.../ Eztago kablerek.../ Bestela.../ Tira eta tira, orain Anton, gero Gilen, eznaiz hilen, Gilen./ Hemen euskaraz/ ta han erdaraz./ Okerbideak ezpaitaki mintzaerarik, berdin tratatzen baitu/ erdalduna/ eta/ euskalduna».

Langile arteko langile

Bertatik bertara bizi izandakoa deskribatzen du Arestik hor. Bere geografian du bere borroka. Compañía Vasco Africana enpresako kontuak eramaten zituen, eta denbora ematen zuen Zorroza inguruan berak ere. Langile artean, bera ere langile. Egun paseo gune den leku ber horretan. Kontuak egiteko makinaren aurrean egunez, idazmakinari joka gaue-

tan. Hala deskribatzen du senar izan zuena Meli Estebanek. «Bizilagunek ere entzuten zuten, eta zera esaten zidaten: 'Gaur zure senarra berandu arte egon da lanean!'». Eraikineko hormetan oihartzun egiten idazlearen hitzak. Eta oraindik ere oihartzun egiten bere Bilbo egungo Bilbon. Oraindik ere jar daitekeelako urratsa haren hitzetan.

Areago. Alderik alde gurutza daiteke Gabriel Aresti Bilbon. Txakurra ere pasea daiteke haren gainean. Otxarkoaga auzoan bada *Gabriel Aresti* izeneko zemarkale bat. Leioan bada *Gabriel Aresti* izeneko kale bat. Donostian, Hondarribian, Barakaldon, Gasteizen... Halakoen aurka azaldu zen idazlea *Nire izena* poeman; alferrik. «Jainkoak eztezala nahi Bilboko karrika bati/ nire izenik eman diezaiotela./ (Eztut nahi bizargile hordi batek esan dezala:/ Ni Arestin bizi naiz, anaiaren/ koinata nagusiarekin. Badakizu. Maingua)». 1999an argitaratutako *Bazka* aldizkarian aipatu zuen anekdota Xabier Mendiguren idazleak. «[Donostiako] kale hau ere ez dugu karrika, baizik pasealekua, eta lauza-oren ordeztu kartoizko panel handi bat dago aspaldian kalearen sarreran: 'Gabriel Aresti cortado por obras'. Poesia hutsa».

Botaka egiten zuen Aresti

Etiketotutako Aresti bat ez ote den gurtzen. Kezka hori zuen Mendigurenek artikulua hartan. «Ertzak leundu dizkiotela, asimilatu-edo; kalea jarri diotela, azken batean». Izan ere, bere garaian handiak jaso zituen idazleak beste hizkuntza hartan beste gizarte hura amesteagatik. Kontra egin zioten ezkerrek, eskuinek eta euskalek. Polemista zen, baina ez du horrek esan nahi erasoak jasatea erraza egiten zitzaionik. Haren emazte izandako Meli Estebanek *Gabriel Aresti, luma zikina* dokumentalean gogoratzen du idazlearen ezina. «Hitzaldi batzuk bukatu eta botaka ikusia dut nik, gelditzen zitzaion ondoezagatik, español deitzen bazioten, ezin zuelako bere burua defendatu, zeren nola defenditzen duzu garai hartan ez zarela espánolista kartzelan bukatu gabe?».

Lur zail hori da, ordea, Arestiren ahotsak kantatzen eta salatzen duena. Haren orrietan altxatzen da Bilbo hura. Eta Bilbo haren osteko Bilbo honetara heltzen da haren oihartzuna. «Hau da Bilbo esan zuen gizonak».

BIHAR

Hertzainak-en Gasteiz



Gabriel Arestik lantoki izan zuen Zorro-zako portua; egun, abandonatutako industrialdez beteta dago.
MONIKA DEL VALLE / ARGAZTI PRESS

UDAKO
SERIEA

Kantuan diren lekuak (eta VI) • Badaude hitz egiten duten lekuak, eta badaude ibili daitezkeen hitzak. Oraindik ere sumatu daiteke Hertzainak taldeak 1984an amestutako Euskadi tropikalaren arrastoa egungo Gasteizko kaleetako harlauzen artean.

Gasteizko tropikoa

Iñigo Astiz Gasteiz

Nik enkargatua izan nahi nuen, / baina denok izatez jaiotzatik/ puta seme batzuk besterik ez gara». Kalea jarri zuen hizketan Hertzainak taldeak. Oso zeharkakoak dira hiriri buruzko aipamenak beren kantetan, baina Gasteiz dago taldearen muin-muinean. Itsasorik gabeko hondartza hauetan sortu zen beren ametsa: Euskadi libre eta tropikala. Zapatari kalea, Aiztogile kalea, Aihotz plaza... Palmondoak landatu nahi zituzten harlauza arteko zirrikituetan. Alferrik, noski, baina, oraindik ere, lehen diskoa kaleratu zutenetik 30 urte bete direla, haien kantetan ibil daiteke Gasteizen dabilena. *Sigarrillos amariyos* abestiaren oihartzunean, adibidez. «Baina la vida sigue igual zerak esaten zuenetz/ Shakespearek? Ez, Julio Iglesias lerdok/ [...] langabe nago/ ezin diat gasteizen paratu/ beloradora joango nauk/ beloradotik Malagara/ Malagatik zeutara/ ta zeutatik txironara/ destinu petrala./ Hau xe duk haxe». Kantua jarri zioten hiriri, eta hiria bisitatu daiteke orain kantuan. Urrats bat, abesti bat. Badaudelako hitz egiten duten lekuak eta ibil daitezkeen doinuak.

«Garai hartan zeuden kantautoreak, eta hitzetan herria aipatzen zuten, baina oso idealizatuta. Ematen zuen Euskadi zela gauza bat flotatzen zuena. Eta, bueno, ba ez, guretzako herria zen gure taberna, gure giroa, larrua jotzea, eta ez dakit... bizitzea!». *Salda Badago* dokumentalean datoz Josu Zabala Hertzainak taldeko musikari eta baxu jotzailearen hitzok; argi azaltzen du zertarako nahi zuten taldea. «Sex Pistolek beren erreginari buruz esaten zu-

tena guk ere esateko herriari buruz eta geure bizitzei buruz». Hemen ere erregea biluzik zegoela oihukatzen, alegia. Eta hori guztia euskaraz, eta hori guztia Gasteizen. Urrun baitzuen orduan rocka euskal giro ofizialak, eta urrun baitzuen orduan euskara Gasteizko giro alternatiboak. Baina arrakala horietan sortu zen Hertzainak. Euskal Herritik Tropikora alde egiteko gogoz batzuetan. «Noiz joango gara Jamaikara?». Eta Tropikoa Euskal Herrira

Gasteizko kaleetan bizitakoa kantatu zuen Hertzainak taldeak orain 30 urte kaleratu zuten lehen diskoan

Urriak dira abestietan hiriri egiten zaizkion erreferentzia zuzenak, baina hiria dago kanta guztien muinean

ekartzeko asmoz besteetan. «Eta bukatzeko Gernikako arbola/ palmera lirain bat bihurtuko da, eh! Euskadin guztiok ibiliko gara/ ipurdia mugitzen bermudetan».

Kalearen konkista

Beste kanta bat. «Euskadin rock & rollak ez du inoiz dirurik emanen/ inon baino alaiagoa izanen da/ ta zer ez da berdin». Bizi ezagutu zuen hiria Iñaki Garitainak india *Gari* abeslariak, taldea abiatu zuen Xabier Montoiaren lekua betetzera heldu zenean. Hiriburu zen orduan hiriburua, Hertzainak. *La confesión radical* liburuan zehazten duenez: «Ni heldu nintzenez, zerbait egosten ari zela igartzen zen Gasteizen, Euskadiko beste hirietan baino gehiago. Alor askotako jendea ikusten zen, eskutoreak, margo-lariak, musikariak, kazetariak...». Bestelakoa da orain irudia. Udako astegun arratsalde,

bero galdatan, isil dira Garik bizi ezagututako kaleak. Baina mantentzen da oraindik kale haien giroa egungoetan. Pixkanaka badaoz gaztez betetzen ostatuak arratsa hoztuz joan ahala, eta igartzen da musika ere taberna atarietako kartel eta abisuetan. «ADI! Ska talde bat osatzeko 16 eta 17 urte bitarteko jendea behar dugu. Bateria, gitarra, bajoa edo tronboia jotzen baduzu, bidali mezu bat zenbaki hauetara: 688 84 57 11 edo 688 65 73 15».

«Musika jotzeko edota elkartzeko leku fisikoen faltan, okupa mugimendua jaio zen, eta, horrekin, gaztetxeak, euskal rocka subkultura bezala gizarteratzeko beharrezko tokiak. Interesgarria da puntu honetan Sarryn Kasmirrek dioena gogoratzea: rocka momentura arte beste kultura-agente batek ere eskatu ez zuen geografia berri baten jabe egin zen: kalearen jabe». Ibai Atutxa ikerlariaren *Tatxatuaren azpiko nazioaz* liburuan dator 80ko hamarkadako giroaren erretratua, eta balio du orduko mugimendua ulertzeko. Ordukoa izateaz gain, egungoa ere badelako. Izan ere, bizirik daude oraindik orduan sortutako batzuk Gasteizen. Zutik 1988an okupatutako gaztetxea, eta martxan 1983an sortutako Hala Bedi irrati librea ere. Blog batean parte hartzeari buruz hizketan oraintxe neska gazte talde bat, irratiak Aiztogile kalean duen tabernan. «Lagun batek eskatu dit, eta badut zerbait, baina ez dakit...». Gune horietan igartzen da Hertzainak-ek kantatutako Gasteiz, eta gune horietan dago Hertzainak-en doinuiekin ezagut daitezkeen Gasteiz ere. Gune hauek, kanitaz kanta.

Itzalpeko poliziak

«Nork ez du maite askatasuna/ nahiz ta leher dedin esku artean?». Poliziak, kontrolak, atxilotetak eta leherketak, guztiak ageri dira Hertzainak-en kantetan. Hori ikusi zuten kalean, hori kantatu zuten kontzertuetan, eta oraindik ere begiratu daitezke kaleak doinu horien erritmoan. Aiztogile eta Zapatari kaleetan, adibidez. Ia pintura idortzerako, gehienetan, ezabatu egiten dituzte udal zerbitzuek pintaketak orain, baina Hertzainak-en garaian mintzo ziren gisakoez min-

tzo dira oraindik ere hormak. *Estatu española hiltzailea; Palestina askatu; Amnistia...* Ezabatuta daude horiek guztiak orain, baina argi irakurtzen da haien arrastoa oraindik paretetan. Eta ezabaketaren gainean pilatzen da ezabaketa, esaterako, San Frantzisko Kantoiko horman. Kasik ulergarri, baina, halere, ulergaitz. Apur-

tutako lelo meta bat: *Torturaketa ohoretz*. Izan ere, historia lezio bat ere badira hormak; arkeologia bertikal bat. Ezabatuta dago, adibidez, errifle baten miran PSOE alderdiaren izena ageri duen pintaketa zaharra, eta handik metro gutxira ezabatu gabe egin berri bat: *Presoak etxera*.

Baina nola aldatzen diren gauzak, kamarada. 34 gradu eguzkitara, Santo Domingo Kantoian udaltzain auto bat motorra mar-



Aiztogile kalean, Zapatari kalean eta Aihotz plazan ezagututakoak dira Hertzainak

txan, itzala hasten den lekuan aparkatuta. Bi polizia barruan aire girotuaren goxotasunean, egonean, Coca-cola zaporeko *Calipo* izozki bat jaten kopilotua. «Erakusteko zer zeran/ bat gutziago edo agian/ derrigor ondetu behar den azken numeroa/ *Si vis pacem parabellum*». Lehen baino sotilago dira orain aurrez aurrekoak; ezkutuago. Sofistikatua da orain epaitegi eta zigor ekonomikoen protokoloa. Horrek ez du esan nahi, ordea, desagertu denik tentsioa, adibidez, izozki urtu bat bezala.

Baskoak ez ikusteko

«Hainbeste alegindu biar naiz/ euskalduna izateko?». Estu ere irudikatzen dute Gasteiz zenbait

abestitan. Nabarmen, adibidez, *Drogak AEK* abestian. Kidéek deskribatzen dutenez, kolektibo xamarra zen hitzen sorkuntza taldean. Azaldua dutenez, hoge pertsona inguru biltzen ziren hasierako entseguetan, eta jende talde horretakoek pasatzen zizkieten hitzak. AEKn irakasle zebilen Bego Arrietak, adibidez. Euskalgintzak eskaintzen zion giro estuaz nazkatutik zegoen neskak. Zabalak azaltzen du haren sentimendua: «Euskaldunak baginen, baina basko ofizialez oso ezberdinak sentitzen ginen. Bego- ren egunerokotasunaren parte zen defenditzea haien aurka». Eta amorru hori ahoratzen du Hertzainak-ek. «Egunero klasera joan ta kolegak kalean/ eta arro-

Zutik diraute oraindik taldeak martxan eta albratzen ezagututako asko: Hala Bedi irratia eta gaztetxea, adibidez

Gasteizko kaleetan nabarmen igartzen dira oraindik Hertzainak-ek bortitz ezagututako gatatzaren arrastoak

tza sentitzen naiz/ kanutoa zeini pasa,/ zeini konta kaleko azken mobida/ zetako? Ez dabe entenditzen/ ez dia beinbez kalia bizi izan/ ta ondio ez dabe betiko eskemak/ apurtu: Jaungoikoa, lege zaharra/ ta H.B.ri botua eman./ Eulixak najak eta drogak nahi ditut AEK-n/ itsu egoteko/ baskoak ez ikusteko». Eta kanta entzunda, basko haiek, noski, haserre.

Argi, halere: erdaraz bizitakoak dira Hertzainak-ek euskaraz kantatuko asko. Horixe da, adibidez, *Sigarrillos Amariyos* kantaren kasua. Orain hilabete azaldu zuen Zabalak kantaren jatorria, Bilbo Hiria irratian egindako elkarrizketa batean. Alfredito izeneko lagunak bazkaloste batean sutsu esandakoa da haiek sutsu

kantatutakoa. Hitzez hitz, kasik. «Bazkaloste batean, *enrollatu* ginel, eta pare bat kanuto erre eta patxaran bi edan, eta halako batean haserretu zen kristo guztiarekin Alfredito, altxatu zen bere bizitzako diskurtsoa botatzeko, eta horixe kontatu zuen». Kantua kontu, alegia. «Nik enkargatua izan nahi nuen/ baina denok izaitez jaiotzatik/ puta seme batzuk besterik ez gara». Ez du Zabalak esaten, baina ziurrenera gaztele-raz botako zuen *hitzaldia* Alfredito hark. Eta ez da kasu bakarra.

Karra Elejalde aktoreak hamahiru kanta inguru idatzi zizkion taldeari, eta guztiak dira gaztele-raz idatzitakoak. Hori, esaterako, Hertzainak-ek euskaraz abestutako *Salda Badago* kantaren kasua. Eta hor, Gasteizko- en diskografian hiriari egiten zaion beste erreferentzia nimen-ñoa, jada desagertuta dagoen Aihotz plazako Txato taberna mitikoa aipatzen baita bertan. «Gaur beti bezela euria ari du hemen/ eta danok estalita goaz belarritaraino/ Salda pixkat da behar duguna,/ goazen Txatora/ edo hobe hire etxera lasai egitera./ Ostia hi! Berotu eskuak/ beste leku batean/ izoztu egingo naun eta salda badago./ Egun grisa hotza kalean/ negu gogorra herri puta hontan/ bizitzak emandako plazer txiki/ hoiengatik ez balitz».

Harlauza peko hondartza

Urrun dira orain hotzak eta desagertuta saldak, baina hemen sortu zen abesti hori: San Frantzisko Kantoian, neguan. Bertan zeukan etxetik ikusi zuen polizia karga kontatzen du abestian Elejaldek. «Zarata bat entzun, kristal garbitu, eta pin, pan, pun!, begira, salda badago. Oso famatua zen orduan Casa Vascako salda, salda beroa, eta zera esan nahi nuen: 'Ze ongi egoten den etxean, babesean, ze hotza egiten duen kanpoan, baina jendeak berotzeko go-go du, eta sekulakoa muntatu dute, begira, begira, badator polizia, lasai, inor ez da izoztuko zeren beño dago kalea'». *Hertzainak. La confesión radical* liburuan dator kontaketa, baina onartzen du errezeloa ere. «Sentsazioa dut askotan ez direla ongi itzuli nire kantak euskarara. [...] Nik idatzi baino askoz zuzenagoak dira euskaraz». Bada alderik, beraz, jatorrizko *Hay caldo* hartatik, taldearen *Salda badago*-ra.

Askotan estu, besteetan zabal, euskaraz bilatu zuen bere tropikoa, ordea, Hertzainak-ek Vitoria eta Gasteiz arteko tarte horretan. Eta igar daiteke hondartza hura oraindik, harlauza hauen azpian.



deak bere abestietara eraman zituenak, eta oraindik ere ezagut daiteke hiria haien doinueta. JUANAN RUIZ / ARGAZKI PRESS